



Kataluniako ahotsak Ama Brigitarren Komentuan.- Albokak 25. urteurreneko ospakizunekin jarraitu du asteburuan. Oraingo honetan Sant Esteve abesbatza kataluniarrek bisitatu du herria. Brigitarren komentua jendez bete zen Alboka eta Sant Esteve abesbatzen doinuez gozatu asmoz. Herriko taldeak kantatu zuen lehenengo bisitariari ongi-etorria emateko eta zilarrezko ezteien ospakizunetako erreperitotik hiru kanta aukeratu eta maisuki interpretatu zituzten. Kataluniarrek berriz, hiru bloketan antolatu zuten euren emanaldia: lehen zatian XVI. mendeko polifonia profanoa landu zuten, bigarrenean munduko herri-musika eta musika tradizionala jorratu zituzten eta azkenik gaur egungo zein betiko kantu kataluniarrez osaturiko blokea eskaini zieten herritarrei. Besteak beste, "Senyor Sant Jordi", "Boig per tu" eta "Com és el mar, mariner?" kantuak entzun ahal izan ziren larunbata arratsaldean. Publikoak txalo-zarta ozenaz agurtu zituen bi taldeak.

3 GREBA
Greba deialdiak herrian eragina izan zuen

Maiatzak 30ean Greba Orokorra deitu zuten ELA eta LAB euskal sindikatuek. Herrian goizean pikete informatiboak ibili ziren eta arratsaldean berriz, manifestazioa egin zen herriko kaleetan barrena. Herrian lasaitasuna nagusitu zen eta asko izan ziren itxitako dendak.

4 ZABALETAKO JAIK
Zaparradek ezin izan dute Zabaletako festa hondatu

Giro petrala izan da asteburuan Lasarte-Orian. Haizea, hotza eta euria batez ere bisitari izan diren arren, Zabaletako bizilagunek festez gozatu ahal izan zuten programako ekintza gehienak aurrera eramanez. Haur, gazte zein helduek denek izan zuten ondo pasatzeko aukera.



5 ASTE BERDEA
Ekintza bereziak elikagaiak oinarri hartuta

Ekainaren 5ean, Ingurumenaren nazioarteko eguna da. Aurten leloa Pentsatu, Elikatu, Aurreztu da eta helburua elikagaien hondakinak eta xahutzeak saihestea da. Horrela Lasarte-Oriako Udalak Aste Berdea antolatu du elikagaien zikloa ardatz. Ekintza bereziak gaur hasiko dira.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra





**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Martin Anso
Ikaslea

Momentu honetan edozein gazteri zer moduz dagoen galdetuta, bere egoera laburbiltzen duen hitz batekin erantzungo du. Izan ere, ikasle guztiok jasaten ditugu urtean pare bat aldiz gutxienez egun horiek. Inoiz baino aztoratuagoak pasaten ditugunak. Batzuk, beste batzuk baino larrituago ibiltzen dira, baina denongana iristen da azterketen itzala. -Zer moduz?

-Puff azterketetan- eta galdera edozein izanda ere, erantzun berdina izango da.

Egia esan ezin da ukatu azterketek denoi eragiten digutela. Urte osoko lana, ordu batzuetan erabakitzen baita. Pertsonarik lasaien ere aldatzen du bere jokamoldea ere txikiak bada ere. Hala ere, ez da beti asmatzen eta askotan kale egiten da paperaren aurreko norgehiagokan. Arrazoiak, mila izan daitezke, azterketa zaila, irakaslearen betiko mania edo justu bezperan telesail japoniar baten reposizioa botatzen zutelako eta aukeratu beharra zenuelako, edo azterketa edo japoniarak.

Kalabazak diren arrazoiengatik direla, ez dira inoiz atseginak. Baina okerrena da telesail japoniarra ere ez-zela ona. Eta orain zure finantziadoreei esplikatu behar nolatan eta zergatik dagoen gure nota orriaren gainean kolore gorri. Absurdoa litzateke esplikatu behar saiatzea foro batean oso ondo jartzen zutela programa, edo jatorrizko bertsiotan botako zuten azkeneko aldia izango zela. Momentu horretan, erantzun batek soilik salba zaitzake, -Puff azterketan nago, ez naiz guztira iristen, hurrengoan bai, lortuko dut! Bezperan telebistan ezer ez badago.

Beti ikasten

Azterketa hitza hitz potoloa da urte sasoi honetan. Ekaineko azterketetan dena egon ohi da jokoan, batxilergoa gainditu eta selektibitatea egiteko aukera, DBH gainditu eta lanbide heziketatik jo edota ikasten jarraitzeko erabakia, karreran aurrera egin edota behingoz titulua eskuratu...

Bizitzan denek pasa behar izan ditugu azterketa bat egin aurretiko urduritasunak. Baita ondorenak ere, gelatik atera eta ikaskideen galderari erantzun beharra, "Zer moduz egin duzu?" Eta hor gakoia, zer erantzun? Ondo, bueno ez dakit, oso zaila zen, irakaslea kabroi bat da "harrapatzea jun da", oso gaizki...

Bereziki amorruta ematen zuen azken hitz hauek esan

eta notak kaleratzeko garaian, 8-tik gora ateratzen zuten ikasleen kasua. Hura bai tribu xeblebra.

Hala ere, gaztetxoentzat azterketak momentu honetan munduko gauzarik garrantzitsuena dira, behintzat batzuetzat. Orain ez dute garbi ikusten baina zahartzen joan ahala ulertuko dute benetan baliogarria, azterketetan islatu beharreko edukiaz haratago, ikasurte guzti hauetan ikasitakoa izan dela, pertsonalki egindako bidea. Ostiralean institutu batxilergoko titulua banatu zituzten eta bertan bildutako irakasleek behin eta berriz esandakoa ekarriko dut, "nahi duzuen bidea hautatu hemendik aurrera baina batez ere zorientuak izan eta bete zuten desioak", ikastearena ordea, egunero egiten jarraitu beharko da. Beti ikasten.

Hitz eta pitz

Zer moduz azterketa garaian?



Ane Aranburu

Nahiko estu nabil, gainditzeko ez badut, gero erreku-peratzeak eta festa gutxiago izango da eta. Edo, maila ezin pasa. Materia batzuetan, klasean arreta jarri eta ondo daramazu, baina, beste batzuetan ez, utzikeriarengatik, irakaslea ez delako entretenitua... Eragozpen handienak eguraldi ona eta lagunak dira, distraitzeko kalera ateratzea. Ondo etorri zaigu eguraldi txarra.



Mikel Felipe

Gaizki. Ikasurte bukaeran azterketa asko jartzen dizkigute batera, eta ez dugu denbora asko izaten bakoitzak ikasteko. Urtean zehar ez gara asko kezkatzen eta gero dena pilatzen zaigu. Lagunekin geratzen gara ikasteko, baina gero ez dugu asko aurreratzen. Berdina, atsedean hartzeko telebistaren aurrean jartzen bagara. Dena den, pixkatxo bat ikasitara aterateko aurrera.



Estrella Portillo


Ikasle nintzen garaian, orain baino gogorragoa zen. Orain arinagoa da, "ligh"-a. Ni asko estutzen nintzen, gehitxo kargatzen gintuztelako. Batzuen kasuan urtean zehar ez zuten ezer egiten eta gero ezin. Ni, ordea, oso langilea nintzen, eta etxetuloa. Ez nintzen lagunekin asko ateratzen, eta azterketen garaian gutxiago. Gero ikasketak utzi eta lanean hasi beharra izan nuen.



Eneritz Errasti

Ostiralean bukatu ditugu azterketak. Nahiko ondo. Bi karrera egiten ari naiz, eta azken orduan izaten dira kontuak. Hasierako ideia denetan saiatzea da, baina, azterketaren batera ez aurkeztea erabaki dut... Azkenerrako uzten ditugu eta dena pilatzen da, lanak, azterketak prestatzea eta abar, alferriarengatik, eta kafetegian lagunekin elkartzea ere gustuko izaten dugulako.

Iruditan



Bruneteko langileak XX.mende hasierako irudian. Antxon Agirre Sorondoren liburutik

Eskola edo lana

Egun gaztetxoek dena ondo joanda, 16 urte bete arte eskolan egon behar dute. Duela ez hainbeste derrigorrezko hezkuntza 14 urterekin amaitzen zen eta lehenago, ohikoa zen ume askok eskola edozein mailatan, batez ere idatzi eta irakurtzen ikasi ondoren uztea. Etxean behar zituzten eta lantegietan sartzen ziren edota baserriko lanetan aritzen ziren. Gurean ere ohikoa zen 8 eta 10 urte arteko mutikoak batetik bestera ibiltzea industria handietan mota askotako lanak egiten. Horrela pentsaezina zen 30 urterekin oraindik ikasten gotea.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,

Maider Azumendi, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Mailu Arruti,

Asier Odriozola, Jone M.

Hernandez, Oihana Salazar,

Pako Aizpirtar, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Arnoz

HEZKUNTZA

Batxilergoko diploma banaketa institutuan

Zortzi ikaslek matrikula eta aipamen berezia eskuratu dituzte



Ikasle eta irakasleek familia argazkia atera nahi izan dute ekitaldia bukatzerakoan.

Batxilergoa gainditu duten ikasleek ostiralean jaso zuten euren diploma Lasarte-Usurbil BHI-n. Ekitaldi berezia egin zuten eta honetan gonbidatua Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria izan zen. Aurten zortzi ikaslek lortu dute 9 baino gehiagoko batatz besteko nota.

Maider AZURMENDI

Uxue Alberdik ekitaldian bere ipuin batzuk irakurri zituen baita ama izan zenean idatzitako bertso hunkigarriak ere. Idazleak gaztetxoak euren ametsak betetzera animatu zituen eta ikasketak hautatzeko garaian hauek kontutan izatea. "Ez hautatu ikasketak etorkizunean izan dezaketelan aukeragatik, hautatu benetan gustura egingo

duzuen, benetan nahi duzuen".

Bere idazteko zaletasunaz hitz egin zien ikasleei eta nola egun hortaz bizitzeko aukera duen, "zuen adinarekin, irakasleek zientzietatik joateko aholkatu zidaten, nota onak ateratzen nituen eta hauen esanetan gaitasuna nuen ingeniariatza edota arkitektura bezalako ikasketak gainditzeko. Nik ordea idaztearekin harremana zuena hautatu nuen, kazetaritza".

Hitzaldia entzun ostean tutoreek euren ikasleei diplomak banatu zizkieten.

Aurtengoan zortzi ohorezko matrikula egon dira eta arrunta ez dela azpimarratu zuten, "baina ofizialki soilik hiru emateko eskumena dugu horregatik besteei aipamen berezia egiten zaie". Bikaine-ko ikasleak Ander Bardaji, Josu Olmos eta Maider Zurirrain izan dira, aipamen berezia berriz, Intza Alkain, Nagore Elola, Saioa Perez, Nicolas Tolosa eta María Valienterentz izan dira.

Familia argazkia egin zuten eta luntxa senide eta irakasleekin. Hurrengo erronka selektibitatea gainditzea dute gehienek.

Greba eguna nabaritu zen herrian

Maitzaren 30a, osteguna Greba eguna izan zen LAB eta ELA euskal sindikatuek deituta. Herrian deialdiak jarraipen nabaria izan zuen nahiz eta goizeko lehen orduetan asko izan bere atek zabaldu zituzten dendak.

Goizeko lehen orduan kotxe karabana egin zen grebara deituz eta pikete informatiboak aritu ziren herriko kaleetan barrena. Horrela batez ere banketeek itxi egin zuten baita merkatalgune handiek ere.

Hezkuntzan herriko eskoletan jarraipen ia erabatekoa izan zuen grebak eta udalean adibidez zerbitzu minimoak bete ziren. Michelinen berriz, "jarraipen eskasa" izan zuten lanuzteak enpresa batzordeak grebara ez deitzea erabaki zuelako besteak beste.



Greba orokorraren alde egin zuten gazteek eraman zuten pankarta.

Manifestazioa

"Euskal Herriak eredu propioa. Eskubide Sozial eta laboral duinak" zioen pankartarekin egin zen arratsaldean manifestazioa. Zumaburu eta Manuel Lekuonatik itzulia

eginda, Okendon bukatu zen. Han Euskal Herrirako Eskubide Sozialen Gutun baten aldeko aldarrikapena egin zuten gazte batek. Besteak beste, politika publikoetan aldaketa sakona eskatu zuten.

DANBORRADA

Entseguak hasiko dira

San Pedro Jaietan danborradan ateratzeko entseguak gaur hasiko dira eta horrela astelehen eta asteazkeneko. Entseguak Sasota-Zumaburu eskolan egingo dira. Danborrada ekainaren 28an aterako da eta aurrez Goiegin afaria egingo da. Honetan parte hartzeko entseguetan eman beharko da izena.

SAHARA

Auzolan Saria eskertu dute

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren lagunak elkarteak Ostadarren Auzolan saria eskertu nahi izan du. Elkartearren hitzetan "sorpresa ikaragarria izan da". Honekin batera "gure eskerrik beroenak Lasarte-Orian ezinbestekoak diren pertsonari; egiazko elkartasuna erakutsi bait dute Saharar herriarekiko. Hau da; udaran, Saharar umeak beraien etxeetan hartzen dituzten sendiei, neguan, arroza eskaintzen dutenei eta kanpaina bakoitzean ahal duten moduan laguntza eta ardura ematen dutenei. Mendebaldeko Sahara ahazten ez dutenei".

Saharar herriaren egoera gogoratu nahi izan dute izan ere, "ia 40 urtez, sufrimendu eta erresistentzia jasan eta gero, saharar herria banaturik jarraitzen du, Argelian dauden errefuxiatu kanpamenduetako erbesteratze nazkagarrien eta Maroko giza eskubideen urratze eta bortxatze etengabearen artean, bai kale eta espetxeetan. Honen konplize dira NBE eta Espainiar zein Frantziar estatuak. Eskerrik asko, instituzio eta pertsona guztiei, bide hau egiten laguntzeagatik".

PARTE-HARTZEA

Festak antolatzen azken bilera

Gazteria, Festak eta Kirola departamentuak ostegunean, hilak 6, 18:30ean Gaztelekuak hitzaldi aretoan San Pedro jaien inguruan aurrera eramandako "Jaietan blai!" prozesuari amaiera emango dion bilerara deitu nahi ditu lasarteoriarrak.

Bileran, herritarren proposamenetatik sortu eta gauzatu den egitarauaren aurkezpena egingo da. Herritar guztiak daude gonbidatuta eta bereziki prozesuan partu dutenei. Modu berean, bilera honetan 2013. urteko jaietako kartela aurkeztuko da.

FUTBOLA

Ostadarreko taldeetan probak

Ostadar SKT-ko futbol taldeek hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira eta horretarako entrenamenduak aurreikusi dituzte aste honetarako.

Astelehen eta asteazkenean, 18:00etan alebinek (2002) entrenamendua izango dute; 19:00etan infantilak (2001 eta 2000) eta 20:00etan, Emakumezkoen erregionala. Asteartean eta ostegunean, berriz, 18:00etan kadeteak (1999-1998) eta 19:00etan, jubenilak (1997, 1996 eta 1995) eta Erregional mailako gizonak. Ostiralean infantil nesken (2001-200) txanda izango da, 18:00etan.

Honetaz gain, herriko gazteei deialdia egiten die hurrengo egunetan maila ezberdinetako taldeetan proba egitera. Arduradunek kirol arropa eramateko gomendatzen dute.

DANTZA

Sorgin dantza Ezpalak jaialdian

Iruñeko Duguna dantza taldeak Ezpalak jaialdia antolatzen aurrean. Jaialdirako aukeratutako dantza Sorgin Dantza izan zen eta bertara gonbidatu zuten Lasarte-Oria.

Herriko zortzikoarekin batera Byttomfoten folkedansgrupe (Oslo, Norvegia) Callús-eko bastoners-ak (Callús, Katalunia) Xiberoko Ikastoleako Ikasle Ohien Elkarte (Zuberoa), Loramendi Dantza Taldea (Aretxabaleta, Gipuzkoa), Le Quadrille Occitan (L'Union - Frantzia). Jaialdia El Burgo plazan ospatu zen giro politean. Lehenago taldeek alde zaharreko kaleetatik kalejira egin zuten.





Beñat Telleria 17 urteko harri-jasotzailea | 11 arroako koadro zaharra berdintzen (137,5k).



Proba mixtako argazkia eta denborak: Telleri Gaina 11'43", Auzoko Gazteak 11'43,2", Zubieta 12'36", Zabaleta 12'54".



Xumela abesbatzak, buruhandiek eta herriko musika taldeek ere girotu zuten festa.

Teresa Sorgina, mela-mela

Euriak ezin izan du zabaletarren festa oztopatu

Urtero bezala, asteburuan izan dute protagonismorik handien Zabaletako jaiek. Astean zehar hainbat ekintza egin ostean, ostiraleko txupinarekin hasi ziren festak ofizialki, Teresa Sorginaren jaitsierarekin. Hortik aurrera, egunean zehar haur tailerrak, kirola, antzerkia, dantza, erromeria etab. izan dituzte gozagarri herritarrek eta gautxoriek berriz, musika eta parranda. Udaberri giro petrala izan arren, ez haizeak ez lainoek ezta euriak ere ezin izan dute festa gelditu eta jende asko bildu da Zabaletan hiru egunetan.

Egun hauetan aldapa igo eta eguraldiari aurre eginenez Zabaletako jaiez gozatu edo festan parte hartzea hurbildu den herritar kopurua handia izan da.

Ostiral arratsaldean euriak atsedena eman zuten urrietako batean egin zuten Teresa Sorginaren jaitsiera, Dinbi Banda batukadaren erritmo biziez lagunduta. Ostean Oriako sorgin dantza herrikoia egin zuten lasarteoriar koadrila batek eta polita izan zen antzinako ohiturak galtzen ez direla ikustea.

Gauean musikaren txanda izan zen. Itzartu eta Trikihots erromeriek eta baita Xumela

abesbatzak ere dantzan eta kantuan jarri zituzten zabaletarrak. Eguraldi txarra tartekoko Kukukaren dantza garaikideko emanaldia bertan behera geratu zen, baina eskolako ikasleek hainbat koreografia egin zituzten tarteka erortzen ziren tanta bakanei aurre eginez.

Larunbat goizeko diana eta karta-jokoaren ostean, arratsaldean gaztetxoentzat herrikirolak izan ziren Porrotx zeremoniaren gidari zutela. Jalguneko lagunek "Sagardotegia" antzezlanaren aurkeztu zuten eta lau emakumez osatutako bertso saioa egin zen Unai Muñoa gai jartzaile zela. Maialen Lujanbio, Alaia Mar-

tin, Amaia Agirre eta Ane Labaka herritarra aritu ziren kantuan. Besteak beste, Saharako herria edota eguraldi txarra izan zituzten hizpide.

Gauean gazteen txanda izan zen. Makulu Ken eta The Garax taldeek sekulako giroa jarri zuten Antonio Blas plazan goizaldeko ordu txikieta-arte.

Baserritar giroa eta kirola

Igandean jende ugari hurbildu zen Zabaletara baserritarrez jantzita. Patata tortilla leihaketara bederatzita aurkeztu ziren eta Eñaut eta Unai Apaolazarena izan zen garaile. Urteroko proba mixtan Telleri-gaina nagusitu zen segundu erdiagatik, Auzoko Gazteen taldearekin borroka estua eduki ostean. Zubieta eta Zabaleta atzetik sartu ziren.

Bestalde, Urtzi eta Beñat Telleria harrijasotzaileek ere plazan saioa egin zuten harri kubiko eta zilindrikoekin. Amaitzeko herri-bazkaria, Laiotzen erromeria eta traka izan ziren.

Argazki galeria eta bideoak txintxarri.info webgunean



Oriako Sorgin Dantza herrikoia egin zuten Zabaletako festetan, haur, gazte eta heldu herriko antzinako tradizioei eutsiz.



Alaia Martin bertsoan, Lujanbio, Labaka, Agirre eta Muñoa begira dituela.

Aste Berdea, aztarna ekologikoari begira

Slow food-a, ekogastronomia, konpostajea eta azoka berezia aurtengo egitarauan

Ekainaren 5ean, Ingurumenaren mundu mailako eguna da. Aurten leloa Pentsatu, Elikatu, Aurreztu da. helburua elikagaien hondakinak eta xahutzeak saihestea. Horren harira Lasarte-Oriako Udalak Aste Berdea antolatu du aste honetan. Elikagaien zikloa jarraikiz, hainbat ekitaldi antolatu dira.

Nerea Sanchez Hirigintza, ingurumen, merkataritza eta osasun batzorde burua eta Mikel Urruzola Artelatze ordezkaririk Aste Berdearen aurkezpena egin zuten Telleria baserrian gaur eguerdian.

Nereak azaldu zuenez, FAO-ren datuen arabera, "gure planetan, urtean 1,3 bilioi tona elikagai alferrik galtzen dira; bestalde, bost urteko 20.000 haur baino gehiago hiltzen dira gosez egunero. Aurtengo gaia elikagai mailan hartzen ditugun erabakiek daukaten inpaktuari berri eman nahi du". Hau da, herritarren erabakiek ingurumenean izan dezaketen eragina eta horrek sortzen duen aztarna ekologikoa.

Elikagaien zikloa

Horrela, Aste Berdean maila lokalera Pentsatu, Elikatu, Aurreztu leloa egokitu du Udalak.

Horretarako, elikagaien ziklo guztia, ekoizpena, salerosketa, kontsumoa eta sortu-

tako hondakinak, ukituko dituzten ekimenak antolatu ditu hurrengo asterako.

"Lau atal horietan gure eguneroko jardunean irizpide kritikoak jotzea da helburu nagusia. Mota honetako ekimenak herritarren sentsibilizazioa indartzeko lagungarri direla uste dugu" aipatu du.

Honen harira, "guretzako lehen sektoreak du protagonismoa. Eta zehazki, baserri honetan, bertako produktuak herrian, modu zuzenean lortu baititzakegu," adierazi zuen Nerea Sanchezek aurkezpena Telleria baserrian egin zutelaz aitzakiko.

Egitaraua

Honela hiru ekitaldi nagusi izango dira Aste Berdean.

Gaur, Slow Food mugimendua eta Euskal Oiloaren dastaketa laborategia izango da Arrieskalleta elkartean, 19:00etan.

Honetan ekogastronomia eta ekoizpen biologikoa duten produktuei buruz hitz egingo dela azaldu zuen



Nerea Sanchez eta Mikel Urruzolak Aste Berdea aurkeztu zuten Telleria baserriko negutegian.

Mikel Urruzola Artelatze ordezkaririk.

Eta gainera, ondoren, arrautza eta barazkiak erabiliz nahaski ezberdinak prestatuko dira.

Asteazkenean Ingurumenaren egunean, berriz, Zabalera auzoko konpostagunean saio praktikoa izango da, 19:00etatik aurrera.

"Gaur egun Lasarte-Oriango dagoen auzokopostaje gune bakarrean," azpimarratu zuen Ingurumen zinegotziak.

Bestalde, larunbatean, 9:30etik 13:30era, elikagaien azoka berezia izango da

Okendo plazan. Honetan, bertako barazkiak, esnekiak, ogia, gozogintza... denetarik izango da.

Honetaz gain, haurrentzako talo eta hazi eta landareen tailerrak ere antolatu dituzte. Talo tailerrean, "haiek bere talo prestatu eta jateko aukera izango dute".

Era berean, informazio puntu bat ere izango dela adierazi zuten.

Honetan, kontsumo arduratsuari buruzko informazioaz gain, gaiarekin eta gure herriarekin lotuak dauden hiru mikroistorio ikusteko

aukera izango dute herritarrek. Ondoren, bere gogokoen bozkatu eta parte hartzaile guztien artean zozketa egingo dela aurreratu zuten prentsaurrekoan.

Izena ematea

Gaur eta asteazkenean ekimenean parte hartzeko izena ematea komeni da.

"Izena eman gabe doazena ere ongi etorriak izango dira, baina komeni da inskribatzea," aipatu zuten.

Horretarako 943 670637 zenbakira deitu behar dute interesatuek.

Arantxa Zulaika herritarra irabazle San Pedroetako kartel lehiaketan



Lasarte-Oriako 2013 urteko San Pedro jaiek badute kartela, Arantxa Zulaika Arka herritarrena, hain zuzen ere.

Aukeratuak kartelak ukitu retroa du eta Lasarte-Oriako jaietan nagusi diren ekitaldiak islatzen ditu, ondoko irudian ikus daitekeen bezala: Sorgin jaiak, danborrada, Sorgin-dantza, Oriako jaitziera, etab.

Aukeraketa

Maiatzaren 25ean amaitu zen kartelak lehiaketara aurkezteko epea.

Guztira 8 lan aurkeztu ziren eta herritarrek haien iritzia emateko aukera izan zuten maiatzaren 27ra arte.

Horretarako, kartelak ikusgai izan dira lasarteoriarren web orrialdean; eta bestetik, Manuel Lekuona Kultur-Etxe-

ko lehenengo solairuan. Bietan herritarrek gogokoen zuten kartela bozkatu ahal izan dute.

Bozka hauek guztiak kontutan hartuta behin-betiko erabakia Gazteria eta Festak batzordeak hartu zuen lehengo astean. Hala ere, Udalak jakitera eman zuenez, kartel irabazlea herritarrek gehien bozkatu duten lana izan da.

**Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!**

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

LABURRAK.-

Bruño eta Eugi atletak Euskadiko txapeldun

LOKEko atleta gazteek maiatzaren 25ean, junior eta jubeniil mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren eta emaitza ederak lortu zituzten.

Jubeniil mailan Maria Eugi eta Jon Ander Bruño jubeniiletan Euskadiko txapela eskuratu zuten.

Maria Eugik 200 m. lasterketa irabazi zuen eta horretaz gain, jauzi horukoitzean brontzezko domina eskuratu zuen.

Era berean, Bruñok jauzi hirukoitzeko proban urrezko domina lortu eta luzera jauzian bigarren izan zen.

Bestalde, Itoitz Rodriguez jubeniilak 200 m. lasterketan zilarrezko domina lortu eta bere marka hobetu zuen, 23 segunduetatik jaitsiz. Eta Ane Galardi jauzi hirukoitzeko proban bigarren eta luzera jauzian hirugarren izan zen.

Honetaz gain, Eneritz Busto eta Idoia Olasagasti kadete mailako Erkidego arteko txapelketan izan ziren Euskadiko selekzio-arekin. Eneritz bosgarren izan zen altuera proban eta Idoia, berriz, zazpigarren 100 m. lasterketan.

Garrido eta Mendibe judokak Gipuzkoako txapeldun

Lehenengo asteburuan, maiatzaren 25 eta 26an, LOKEko judoka gazteek batetik infantil mailako Euskadiko txapelketa eta bestetik, alebin mailako Gipuzkoako txapelketa izan zituzten Hernanin.

Honetan, taldeko hamazazpi gaztetxok parte hartu zuten eta primerako lana egin zuten, sei domina, urrezko bi, zilarrezko bat eta brontzezko hiru ekarri zituzten herrira.

Ander Garrido eta Jerai Mendibe dira Gipuzkoako txapeldun berriak, Ibai Arangurenekin lortu zuen bigarren postua eta Erik Bermejo, Alex Saleta eta Manu Revueltak hirugarren postua lortu zuten.

Bestalde, infantil mailan Jorge Revueltak ez zuen Euskadiko txapelketan emaitzarik lortu.

Lasarte-Oriako tenis txapelketarako izena ematea

Lasarte-Oriako IV. Tenis txapelketako izena ematea epea ireki da. Arduradunek jakitera eman dutenez, txapelketa ekainaren 15 eta uztailaren 26a bitartean jokatuko da. Ekainean zehar, partidak asteburuetan izango dira eta uztailaren astelehenean ostiralera aratsaldean, 17:00etatik aurrera.

Inskripzioa egiteko lasartenis@hotmail.com helbidera datuak bidali eta 20 eurotako kuota ordaindu behar dira. Ordainketa Kutxabank-eko 2095 5096 91 1071099716 zenbakian egin behar da eta Tenis + izena eta abizenak jarri behar dira konzeptuan. Izena ematea ekainaren 13an, osteguna amaizten da.

TENISA.-

Landaberriko tenis taldeak txapeldun

Lehenengo larunbatean, maiatzaren 25ean, Michelingo kirol gunean alebin eta infantil mailako Gipuzkoako eskolarteko tenis txapelketako finalak jokatu ziren eta Landaberriko gazteak izan ziren. Alebin mailako Landaberri ikastolako taldeek, bai neskak, baita mutilak ere, txapeldunaren kopa eskuratu zuten.

Honela, banakako txapelketako hainbat final ikusi ahal izan zituzten kirol guneko tenis pistara hurbildu ziren herritarrek.

Horien artean, alebin mailako mutilen lehiaketako finalen Julen Uitzu herritarra izan zen.

Mary Word ikastetxeko Mikel Pelaezen aurka izan zuen norgehiagoka eta 6-4



Gazte guztiek talde argazkia atera zuten saribanaketa amaiztean.

galdu zuen. Beraz, zilarrezko domina eskuratu zuen Lasarte-Oriako gazteak.

Taldeak bikain

Bestalde, saribanaketa taldeko txapelketako sariak ere banatu zituzten eta honetan

IGERIKETA.-

Buruntzaldea ederki Euskal Jokoetan

Hiru urre, bi zilar eta Espainiako txapelketarako marka

Buruntzaldea IKT-ko bigarren urteko alebinak Durangon, maiatzaren 25ean, jokatu ziren Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan parte hartu zuten. Igeriketa taldeko gazteek lan ederra burutu zuten eta gehienek haien marka hobetu zuten.



Kirol Jokoetan parte hartu zuten igerilariak lortu zituzten dominekin.

TXINTXARRI

Lehenengo asteburuan, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak izan ziren eta hauetan, Buruntzaldea IKT-ko alebinak izan ziren lehian eta "emaitza oso onak lortu zituzten gure igerilariak," adierazi zuen Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Izan ere, hiru urrezko domina eta bi zilar eskuratu zituzten taldeko gaztetxoek.

Aipatzekoak dira, Nahia Jie Villamedianak 200 m. eta 100 m. bizkar probetan lortutako garaipenak. "Euskadiko Txapeldun izan zen nagusitasun osoz," aipatu du Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak.

Gainera, Nahia Jie-k 100 m. eta 200 bizkar probetan bere marka hobetu zuen eta bigarrean uztailaren Manresan izango den Estatuko txapelketan egoteko txartela

lortu zuen. "Oraingoz beraz, Manresan bi proba izango ditu Nahia Jie-k; 100 m. eta 200 m. bizkar probak".

Honetaz gain, Nahia Gipuzkoako selekzioan parte hartu zuen errelebuetan. 4x100 m. libre proban txapeldun izan ziren eta 4x100 m. estiloak proban, aldiz, txapeldunorde. "Bietan Nahiaren lana ezinbestekoa izan zen".

Bestalde, Buruntzaldea IKT-ko Jon Ibarogyenek ere domina eskuratu zuen 100 m. libre proban, zilarrezkoa, eta bere marka hobetu zuen, "marka bikaina lortu zuen aurreko igandekoa, Gipuzkoako txapelketakoa hobetuz".

Honetaz gain, 200 m. libre proban laugarren izan zen Jon.

Markak hobetuz

Era berean, beste hiru igerilari

ere izan ziren Kirol Jokoetan eta haien markak hobetu zituzten.

Leire Carcedo 100 m. estiloak proban aritu zen eta seigarren postua egin zuen. "Egia esan Leire domina lortzeko moduan izan zen. Izan ere 3garrenetik 6garrenera bitarteko denak 1'28an sartu ziren eta Leirek azken bost metroetan amore eman ez balu gutxienez brontzea izango litzateke".

Honetaz gain, Nora Irastusta 100 eta 200 m. estiloak probetan lehiatu zen eta 100 metroetan marka pertsonala lortu zuen.

Beñat Alkorta ere bi proba egin zituen, 200 m. estiloak eta 200 m. tximeleta. Lehenengo proban bere marka pertsonala hobetu zuen Beñat-ek.

GIMNASTIKA.-

**LOKEko jubeniil taldea Gipuzkoako txapeldun**

LOKE, Landaberri eta Sasota-Zumaburu ikastetxeko gimnastika taldeak lehenengo maiatzaren 25ean, Ibarra, lehian izan ziren.

LOKEko jubeniil eta kadete mailako taldeak Gipuzkoako txapelketan lehiatu eta emaitza paregabeak lortu zituzten. Jubeniil B mailako Gipuzkoako txapeldunak izan ziren.

Eta kadeteek, berriz, bosgarren postuan amaitu zuten lehiaketa.

Maite Rueda entrenatzaileak azaldu digunez, oso pozik daudea. "Jubeniil taldea aurtan sortu dugu eta Gipuzkoako txapeldun izatea oso garrantzitsua da."

Udaberri saria

Bestalde, Landaberri eta Sasota-Zumaburu ikastetxeko alebinak Udaberri Sariko bigarren saioa izan zuten eta 17. postuan eta 20. postuan amaitu zuten, hurrenez hurren.

Agenda

Aste osoa, Lasarte-Oria



Aste Berdea berriro ere herrian

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta Aste Berdea egingo da berriro ere gure herrian. Ingurumenaren babesa eta kontsumo arduratsua bultzatzen duen egitasmoa da eta hiru ekitaldi nagusi izango ditu:

ARRIESKALETA ELKARTEA
Astelehena 3, 19:00etan

Slow Food mugimendua solasaldia eta Euskal Oiloaren dastaketa laborategia.

ZABALETA AUZOKO KONPOSTAGUNEA
Asteazkena 5, 19:00etan
Konpostgileen Topaketa, saio praktikoa Artelatzen kooperaribako aditu batekin

OKENDO PLAZA
Larunbata 8, 09:30etik 13:30era

Elikagaien azoka berezia egingo da. Salmenta-postuak, informazio gunea, tailerrak, zozketak... denetarik izango da.

Asteazkena 12, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. LH4, 5 eta 6 mailako gazteek "Gaurik Gaur" antzezlan eskainiko dute.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 24-Asteazkena 05

Brancussi akademiako ikasleen margolanak eta marrazkiak ikusgai izango dira.



MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA JALGI KAFE ANTZOKIA

Ekainean 7tik aurrera

Alboka Abesbatzaren "25. urteurrena" argazki erakusketaz gozatzeko aukera.

Lasarte-Oria

Musika

DONEGAL

Osteguna 6, 23:00etan

Nia Moore King & The Bluebirds taldearen jazz, blues eta soul doinuez gozatzeko aukera paregabea izango da, Kultur Kale Zikloaren barruan.

Antzerki eta dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 5, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako

11. Antzerki eta dantza astea. DBH-mailako gazteek "Erruzkiñe", dantza garaikidea eta "Alizia bitxikerien munduan" lanak aurkeztuko dituzte.

Ostirala 7, 22:30ean

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Helduen taldeak "Haize Burrundada" lana eskainiko du eta gazteen taldeak, berriz, dantza garaikidea egingo dute.

Larunbata 8, 20:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Gazteen taldeak "Trajediatu bat?" lana aurkeztuko du eta helduen taldeak, berriz, dantza garaikidea eskainiko du.



Igandea 9, 12:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Dantzaz Blai! euskal dantza eta sorkuntzako lanak ikusgai izango dira.

Igandea 9, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Dantzaz Blai! dantza garaikideko lanak ikusgai izango dira.

Andoain

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 7, 21:30ean.

Eñaut Elorrietak "Deserriko kantuak" bere bakarkako lana aurkeztuko du. Sarrera 12 euro.

Erakusketa

KALEA, BASTERO KULTURGUNEA, URIGAIN ETXEA, GAZTETXEA, TABERNAK ETA DENDAK

Ekainaren 16ra arte

Andoaingo argazkilari profesionalak eta Gipuzkoako hainbat argazkilarien lanak ikusgai Argazkialdia'13 ekimenaren barruan.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ordulari bat, bi betaurreko graduatu, txandalen baten txaketa, bi mugikor, bi pultsera eta eraztun bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbiltzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Alboka Abesbatzaren XV. urteurrena entseguak eta afaria

Alboka Abesbatzak abesbatzeko kide ohie eta Alboka Txiki, zein Zandategi abesbatzeko abeslari izandako herritarrei gonbita egiten die, ekainaren 22an eskainiko duen kontzertuan parte hartzera.

Honetarako, "Ilunabarra" eta "Kantuz" lanak landuko dira ekainaren 7 eta 11ean, 20:00etatik aurrera, Zumaburuko Arantzazuko amaren azpiko lokalean.

Era berean, abesbatzak bazkide eta abeslari ohiak gonbidatu nahi ditu ekainaren 22an, kontzertuaren ostean egingo den afaira. Aurrez izena eman behar da 678 382 663

telefono zenbakian ekainaren 12a baino lehen.

Soka dantza entseguak

Erketz EDT-k San Juan suan dantzatzen den soka-dantzako entseguak hasi ditu. Aurten asteartean izango dira entsegu irekiak. Horrela ekainak 4, 11 eta 18an izango dira hurrengoak.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokalean egingo dira guztiak 20:30ean.

Erketz EDT-k gonbita egiten die herritarrei honetan parte hartzeko.

Eskutitza

Errepublikak garaiko bandera espainolik ere ez

Espainiako bandera inposatu nahi duen Urquijo delegatuaren aginduari erantzunez, Lasarte-Oriako Udalean talde eta garai ezberdinetan jardun izan garan zenbait zinegotzi bildu ginen joan den Maiatzaren 17an.

Adierazpen bat onartu eta zabaldu genion prentsari. Adostutako idatzian esaten genuen bezala, erabilitako ikurrek gure bizikidetzaren sendotasuna azaldu beharko luteke, inolako gatazka edo talkarik sortu gabe. Urteetako gure esperientzia ere aipatu genuen. Lasarte-Oria udalerrri izan denez geroztik, ikurrinak eta herriko banderak naturaltasunez elkarbizi izan dute, inongo tenkarik sortu gabe, lasarte-oriatarren onespenez zabalarenekin.

Bandera espainola da, ordea, ezbaian dagoena. Askoz gehiago, jakina, dekretuz ezarri edo herriaren zati handi baten gogoaren aurka erabili nahi bada. Eta bandera espainola esaten dugunean, ez gara bandera espainola jakin baten aurka ari. Guri berdin zaigu bandera espainola monarkikoa edo errepublika garaikoa izatea. Biak

dira liskargile eta zatitzaileak.

Hau guztiaren alde izan ginen zintzo zintzo aipatu ostiraleko ekitaldian. Baina, bukatu ondoren ohartu ginen Espainiako banderaren inposaketa salatzea helburu zuen ekintza hartara bertaraturako batek Espainiako bandera bat zabaldu zuela, zinegotzi nazionalista izan ginenon eta garenon iritzia eskatu gabe sikera.

Han bertan agertu genuen gure desadostasuna. Orain, errepublikako bandera espainolaren argazkia TXINTXARRIN ikusita, desadostasun hori jendeurrean adierazi nahi dugu.

Lasarte-Oriako atzoko eta gaurko zinegotzi nazionalista guztien izenean.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Saskibaloiko neska, pozarren, aurten lortutako garaipenekin.



Beltzak Ostadar Jalaik denboraldia bukatu du. Igandean guraso eta seme-alaben arteko partida jokatu zen, ostean, Udaberrin lunch-a.



Besteak beste, atletismoan eta saskibaloian aritzeko aukera eduki zuten gaztetxoek.

Kirol denboraldia amaitzen

Eskola Kirolak eta Beltzak taldeak amaitu dute urtea

Eskola Kirolaren denboraldia amaierara iritsi da. Guztira 361 haur lasarteoriatar aritu dira astean zehar eskolaz kanpoko ekintzak eginez euskaraz izerdia bota eta ondo pasatzen. Hauek zaintzen herriko 31 begirale gazte aritu dira lanean eta urte osoan zehar ikasitakoa erakusteko festa handia antolatu dute larunbateko ekintzen bitartez Michelingo kirolgunean eta udal-kiroldegian. Eguerdian, indarrak errekuiperatzeko bazkaria egin dute Gazte Lokalean.

K irol ugari egiteko aukera eduki dute aurrebenjamin, benjamin eta alebin mailako gazteek 2012-2013 denboraldian. Besteak beste, futbola, saskibaloia, errugbia, gimnastika erritmikoa, pilota, tenisa, igeriketa, judoa, natur ekintzak, erritmo kirolak...

Gainera, LH1 eta LH2ko haurrek kirolaren munduan lehen urratsak eman eta euren gorputza ezagutzen hasteko "kirol hastapena" delako kurtsioa egin dute.

Denboraldiaren balorazio

positiboa egin dute Aitzol Zerain eta Gorka Segurola Ttakuneko langileek. Eskola Kirola herrian sustatzeaz arduratzen da bikotea: "Orokorrean umeen jarrera ona izan da, batez ere saskibaloiak nesken artean arrakasta handia izan du, geroz eta talde gehiago daude eta aukera polita da herriko nesken-tzat", dio Zerainek.

Natur ekintzen saioek urtetik urtera "arrakasta gehiago" izaten ari direla nabarmendu du era berean.

Segurolak bere aldetik esan du herri mailan dagoen kirol aukera "baloratzeko modukoa" dela eta eskola kirolak "izaera hezitzailea" duela. Pertsona bezala "hazteko" ere baliogarria dela uste du eta adin jakin batzuetan haurrei "kirol bakarrez gain bestelako kirolak" badaudela gogorarazi behar zaiela: "Haurrek kirol bat baino gehiago egitea ona da, bakarrekin itsutu beharrean".

2013 / 2014rako izen-ematea

Hurrengo ikasturtean Eskola Kirolaren izena eman nahi duten haurrek euren eskolatan banatuko zaien orria bete eta han bertan entregatu beharko dute. Sasoetan aste honetan hasi eta ekainak 14ra arteko epea izango dute eta Landaberrin ekaineko bigarren astean banatuko da orria.



Martija entrenatzailea Aristondo jokalaria eta laguna besarkatzen, Olaiola begira dutela.

Ostadar SKTren festa.- Zubietako Araeta sagardotegia goraino bete zen Ostadarrek urtero antolatzen duen denboraldi amaierako afarian. Guztira 350 lagun bildu ziren eta aurtengoak berezitasun bat izan du, Realak Champions-a zuen jokoan A Coruña eta bi pantaila erraldoi jarri zituzten guraso, entrenatzaile eta kirolarietako partidaz gozatu zezaten. Ohi bezala, afal ostean iritsi ziren momenturik hungigarrienak, Realaren garaipenaren euforiak kutsatuta, banan-bana futbol eta saskibaloitako entrenatzaileek jokalaria jatorrena aukeratu behar izan baitzuten. Entrenatzaileek esker oneko hitzak izan zituzten jokarietako eta orokorrean saria jokalaria bakar bati ematea zaila zela adierazi zuten. Pello Esnal klubeko kideak hartu zuen zeremonia gidatzeko ardura, duela 30 urte Ostadarrek areto-futbolarekin lotuta izandako hastapenak eta anekdotak kontatu zituen. Babesle eta sponsor guztiak eskerrak eman ostean, entrenatzaileen sakrifizioa goraiatu nahi izan zuen. Aipatzekoak dira Ostadarrek hurrengo denboraldian izango dituen bajak. Batetik, Javi Olaiola kadeteen Euskal Ligako entrenatzaileak kargua utziko du, lau urteren ostean Gorri eta bere bideak banatu egingo dira eta klubari emozioz gainezka eskertu zion urte hauetan emandakoa. Bestalde, Mikel Martijak ere Ostadarren OHorezko Erregionalen taldea utzi egingo du, taldearengan joko-molde jakin bat, lanaren nozioa eta umiltasunaren printzipioa zigilatuta utzita. Zortzi urtez Ostadarreko klubak zuzentzen aritu ostean, gizon esan zuen agur, Gipuzkoako Kopa galdu berri zuten infantil txikiei (2-2 penaltietan) aholkuak emanez. Azkenik, jokalaria jatorrenaren saria Aristondo bere lagun onenari eman eta besarkada batean urtu ziren biak. Sorpresatzat, aurten futbola utzi behar duten Aitor, Javi, Vila, Mayo eta Manexekiko detaile ikusgarria izan zuten euren taldekideek. Bideo gisako omenaldia egin zieten, azken hamarkadako argazki galeria batez osatuta. Jakina, emozioak mallo bihurtu ziren.